



LAB ETA PARTAIDE-en arteko AURREAKORDIOA E.A.E.-n

Joan den azaroaren 14an izandako negoziazio mahaian, LAB sindikatuak eta Partaide-k sinatu duten aurreakordioa aurkeztu zen. Ikastoletako lanpostu eta lan-baldintzen egonkortasunerako izena du akordio horrek..

Hitzartutako puntuak hurrengoak dira:

- Batzorde parekide bat eratuko da enpleguaren egonkortasuna bermatzeko bideak aztertzeko.
- Baldintzak eta prozedura zehazten ditu Lan Hitzarmeneko tauletan zehaztutako lansariak ez betetzeko
- Lansariei buruzkoak, besteak beste
 - 2011ko zorra LAB-ek eta Partaidek 2010 eta 2011 urteetako akordioak jasotakoa berresten du. 2010Ekoa kobratuko du langileak eta 2011koa barkatu.
 - 2012ko eta 2013ko kantitateekin ikastolek langileekin daukaten zorraren aitortza egingo da.
 - 2012, 2013 eta 2014ko irakasleen lansariei buruz: EAEko Aurrekontuetan onartutako hezkuntza Itunetako moduluetan ezarritakoari % 0,7ko gehikuntza egingo zaio ikastolek langileekin daukaten zorra ekonomikoa kitatze aldera. Gehikuntza hau mantenduko da finantziario publikoa 2009ko lansari tauletan ezarritakoa parekatu arte. Hori ez bada lortzen 6 urtez mantenduko da 0,7ko gehikuntza.
 - Urtean 25.000€ baino gutxiago irabazten duten talde profesionaletan 2009ko lansari taulak mantenduko dira kontzeptu guztietan

STEE-EILASen ustez akordio honek ez dakar aparteko lorpenik langileentzako. EAEko negoziazio markoa mantentzen bada ere - akordioak duen gauza positibo bakarrenetarikoa- lansarien inguruan adostutakoak erabat kezkatzen gaitu. Zorra aitortu arren, murrizketek bere horretan jarraitzen dute eta konponbidea luzerako uzteak ez du bermatzen zorra hori kitatuko denik eta legez lortutakoa bete gabe jarraitzen du.



ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos, 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	nafarroa@stee-eilas.org